

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pilar Urkiola Mandiola

*Legutio, Araba
(1942)*

Aurkibidea



Biografia



Zigoitia Udalerriko Zestafe herriko Garraztegi baserrian jaio zen. Eskola eta eliza Legutioko Elosun egokitzen zitzaizkion Garraztegi etxeari. Hori dela eta, Elosun eskolatu zen sei urtetik 11 urtera bitartean. Aita Garraztegikoa bertakoa zuen, eta ama, berriz, Mallabikoa. Zortzi seme-alaba izan zituzten. Euren etxea erre zenean, Elosura joan ziren errentan. Etxea berreraiki eta urte gutxira Urrunagako urtegiaren urpean geratu zen, eta, orduan, Elosun etxe bat erosi zuten. Lurrak landu eta ganadua zaindu zuten 1980. urtean ama hil zen arte. Pilar urtebetez Aretxabaletan egon zen, Zubia sarrailagintza lantegian sarraillak nikeleztatzen. Iluntzeetan Taberna Barrian egiten zuen lan, ohe eta jateko truke. Han ezagutu zuen bere senarra izango zen Antxon Aretxaga. Berarekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituzten.

Zintak

LEG-014

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-04-26
- **Iraupena:** 51 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

LEG-025

- **Proiektua:** Arabako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Data:** 2000-03-14
- **Iraupena:** 47 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** García Uriarte, Imanol

Pasarteak

1. Elosuko eskola

- **Erref:** LEG-014/002
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:03:05. **Bukatu:** 00:05:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Eskola eta eliza Legutioko Elosun egokitzen zitzaizkion Garraztegi etxeari. Eskola plazan zegoen, gaur egun elkarte dagoen tokian. Sei-zazpi urte zituela hasi zen eskolan, eta 10-11 urtera arte egin zituen ikasketak. Neska-mutilek elkarrekin ikasten zuten. Maisu eta andereñoi buruzko azalpenak. Pilarrek ez zekien gaztelaniaz hitz egiten: euskaraz egiteagatik zigorrak...

2. Euskaraz egitea debekatuta

- **Erref:** LEG-014/003
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:05:02. **Bukatu:** 00:07:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Gerra denbora eta euskararen debekua. Pilarren gurasoak euskaldunak ziren. Pilar bere adineko euskaldun bakarra zen Elosun. Zortzi anai-arreba izan ziren, eta anaia zaharrenak eta berak bakarrik hitz egiten zuten euskaraz. Euren etxea erre zenean, anaia zaharrena eta Pilar amaren jaiotetxean, Mallabian, egon ziren bizitzen; han, euskaraz egiten zuten etxekoekin. Anaiak, ordea, galdu egin zuen euskara.</p>

Transkripzioa

-Eta euskaldun asko euen? Gehixenok izango ziñain euskaldunak, ezta?

-Ez... Nire edadekuen iñor be ez.

-A, ya ez euen euskaldunik, e?

-Ez. Ez, ez, ez. Ba, adibidez, nire anai-arrebak bata be ez daki. Euskaldun barrixa, txikiña, adibidez, bai, oin Aretxaletan bizi da ta, bueno, baiña beste danak, holan, zerbait berba batzuk solte edo, baiña bestela ez.

-Kontxo! Eta zu... zenbat anae-arreba izan ziñain?

-E, zortzi. Bederatzi izin giñen, baiña bat jaixobarri hil zan, ta zortzi.

-Eta zu zeu zaharrena?

-Bigarrena.

-Eta zure anae zaharrak be ez daki?

-Ez... Nire anai zaharrena bizi da Amurrion, baiña euskeraz ez daki. Nik ikasi neban, ba, hoixe, han gure aitta-amak, nire amak izan erderaz be ez ekixen, gutxi; aittak bai, baiña amak oso gutxi. Eta fan giñen, ba, hori, ni fan nintzenien aman baserrira, ba, hantxe [Asuntxara], hantxe ikesi neban euskeraz. Ta nire anaie... etxie erre in jakun eta fan giñen hara nire anaie ta neu. Eta nire anaie be bai, baiña, adibidez, ba, nire anaie gero ez zan

bueltatu eta ni faten nintzen urtero-urtero bueltatxo bat itten aitittengana eta amamangana eta, ba, hori, nire anaia ahaztu jako. Bueno, adibidez, berba batzuk eitten eban /eitteban/, baiña oso gutxi. Eta, bueno, ni gero zelan ezkondu nintzen euskaldun bateaz, ba...

-Ya, ya, ya, eske bestela zeuk be igual galdu, ezta?

-Hoixe! hemen ez euen izten euskeraz itten, e.

-Zortzi anae-arrebatatik aitta-amak bixak euskaldunak eta euskeraz zeuk bakarrik eitten dozu?

-Bai... bai... es que lehen ezin leiken hemen euskeraz in, e! hemen gerra denporan oso debekatuta euen hori, e.

-Klaro, eta zuk, klaro...

-Ta nire edadekuak Elosun oin iñok be ez daki, e. Oin euskaldun barrixak, ba, zerbait, baiña bestela...

-Zu baiño zaharraguak bakarrik.

-Bai, ni baiño zaharraguak bai, baiña nire edadekuak... Ta nire atzetik datozenak be urte batzuetan ez. Oin gaztetxuak bai, e? Gaztetxuak, ba, hoixe, euskaldun barriak, baiña bai, ikastolan ta...

3. Eskola garaia

- **Erref:** LEG-014/006
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:10:59. **Bukatu:** 00:11:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Eskola garaiko kontuak. Negu partean, ia egunero joaten zen eskolara. Udar, ordea, oso gutxi; baserriko lanetan lagundu behar izaten zuen. Inguruko ume denak ezagutzen zuten elkar. Mallabitik bueltatu zenean, segitua ikasi zuen erdaraz hitz egiten.

4. Mallabiko bizimodua

- **Erref:** LEG-014/007
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:11:58. **Bukatu:** 00:12:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Garraztegi baserria erre zenean, Pilar eta anaia bat amaren jaiotetxera, Mallabiko Azuntzara, bidali zituzten. Urtebete egin zuten han. Hango bizimoduari buruzko azalpenak: gari-lanak eskuz egiten zituzten, esnea bezeroei banatzen zien...

5. Esnezalea

- **Erref:** LEG-014/008
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:12:57. **Bukatu:** 00:13:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Hasieran, etxerako biltzen zuten zuten esnea. Gerora, Elosura esnezalea joaten zen esnea jasotzera. Bi esnezale ibiltzen zirela aipatzen du.

6. Zigoitiko errotara

- **Erref:** LEG-014/013
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:18:15. **Bukatu:** 00:18:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Zigotiko errotara joaten zen garia ehotzera. Muruan zegoen errota. Gari-zakua asto gainean hartu eta Zigoitiara joaten zen Pilar.

7. Erositako irina

- **Erref:** LEG-014/014
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:18:57. **Bukatu:** 00:20:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Gari gutxi ereiten zuten. Gehinean, irina erosi egiten zuten. Ez zuten ogia egiteko laberik. Esnezaleari erosten zioten ogia.

8. Elosun etxea erosi

- **Erref:** LEG-014/017
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:21:51. **Bukatu:** 00:22:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Garraztegi berreraiki eta urte gutxira Urrunagako urtegiaren urpean geratu zen, eta, orduan, Elosun etxe bat erosi zuten. Etxea nolakoa zen azaltzen du. Lurrak landu eta ganadua zaindu zuten 1980. urtean ama hil zen arte.

9. Bildotsak, biberoiarekin hazi

- **Erref:** LEG-014/020
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:24:05. **Bukatu:** 00:24:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

San Pedroko izeba batek bildotsak ematen zizkien, eta biberoiarekin hazten zituzten. San Migeletarako, herriko jaietarako, ardi zahar bat hiltzen zuten.

10. Ura eta argindarra

- **Erref:** LEG-014/021
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:24:49. **Bukatu:** 00:25:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Garraztegi baserrian ez zuten urik. Etxe ondoan putzu bat, areka, zegoen, eta han garbitzen zituzten arropak. Argindarrak ere ez zuten. Karburoarekin egiten zuten argia.

11. Urtegira, arropa garbitzera

- **Erref:** LEG-014/023
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:25:59. **Bukatu:** 00:27:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Urtegira joaten zen arropa garbitzera. Etxeko arropaz gain, tabernako bizilagunaren arropa ere garbitzen zuen diru truke. Negu partean, ura izoztuta egoten zen urtegian. Elosuko garbitokia geroagokoa da.

12. Zigoitia

- **Erref:** LEG-014/026
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:29:12. **Bukatu:** 00:30:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Zigoitiko Udala non zegoen: Ondategin, Gopegin... Udal zergak Gopegin ordaindu izan ditu. Gopegin domekero egoten zen erromeria, baina Garraztegitik urrerago zuten Legutio. Zigoitiko errota Muruan zegoen.

13. Legutioko erromeria

- **Erref:** LEG-014/027
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:30:23. **Bukatu:** 00:31:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Legution domekero egoten zen erromeria. Gramola jartzen zuten plazan. 16-18 urterekin, inguruko herrietako jaietara joaten zen; Urrunagara, Urbinara...

14. Taberna Barrin zerbitzari

- **Erref:** LEG-014/029
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:32:15. **Bukatu:** 00:32:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Pilar urtebetez Aretxabaletan egon zen, Zubia sarrailagintza lantegian sarraillak nikeleztatzen. Iluntzeetan Taberna Barrian egiten zuen lan. Han ezagutu zuen bere senarra izango zen</p>

15. Baserriko lanetan, umetatik

- **Erref:** LEG-014/032
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:33:51. **Bukatu:** 00:34:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Azuntzan (Mallabia) egon zen garaiko kontuak. Normalean, ez zen eskolara joaten; negu partean, hilabete bat edo. Baserriko lanetan lagundu behar izaten zuen.

16. Aretxabaletako Zubian urtebete

- **Erref:** LEG-014/038
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:38:43. **Bukatu:** 00:39:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Pilar urtebetez Aretxabaletan egon zen, Zubia sarrailagintza lantegian sarraiak nikeleztatzen. Iluntzeetan Taberna Barrian egiten zuen lan, ohe eta jateko truke.

17. Trena

- **Erref:** LEG-014/041
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:44:31. **Bukatu:** 00:45:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Legution trena nondik pasatzen eta inguruko tren-geltokiak non zeuden aipatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com